LH DUAL (2017/18)
ENPRESENTZAKO INFORMAZIOA

Ondoko orri hauetan DUALari buruzko informazioa aurkituko da.
(5 galdera)

GALDERAK

1. Miguel Altunako noren laguntza jasoko dugu?
2. Zer da DUALa?
3. Egutegia. Oporrak zenbat egun? Noiz? Ordutegia
4. Dokumentazioarekin noiz hasi? (jarraitu beharreko urratsak)
5. Tutorea noiz jarriko da kontaktuan enpresarekin? (jardueren planifikazioa egiteko)

ERANSKINAK (beste artxibo batzuetan)

1. DUAL kronograma
2. Kontratua eta bekaren arteko konparazio-taula
3. 2017/18 ikasturteko eskola-egutegia.
4. “Noticias RED” 2011/11 buletina (Gizarte Segurantzako tramiteak)
5. “Noticias RED” 2012/05 buletina (Gizarte Segurantzako tramiteak)
6. Ikasle eskaera fitxa
7. Aukeraketa ondorengo fitxa

1. Miguel Altunako noren laguntza jasoko dugu?

DUALaren tramitazioan zalantza asko sortzen dira. Miguel Altuna Lanbide Heziketa –Lantokiko Prestakuntzaren arduradunak, DUAL koordinatzaileak eta tutoreak- egiteko hauetan lagunduko dizuegu edozein zalantzarekin (zalantza legalak, dokumentazioa ...)

DUAL koordinatzailea:

- Izen-abizenak: **Alberto Larrea**
- Korreo elektronikoa: larrea@imaltuna.com
- Telefono-zenbakia: **688820004**

Lantokiko Prestakuntzaren arduraduna:

- Izen-abizenak: **Joxu Arana**
- Korreo elektronikoa: arana@imaltuna.com
- Telefono-zenbakia: **688820007**

2. Zer da DUALa?

- ✓ Enpresak lanpostu kualifikatu bat betetzeko beharra du.
- ✓ Heziketa Ziklo bat egiten ari den ikasle bat hartzeko prest dago.
- ✓ Lanpostuko aktibitateak, ikaslearen heziketa zikloarekin zerikusia dute.
- ✓ Helburua ikastea da, ikasleak lanaren bidez ikastea.
- ✓ Enpresak instruktore egokia izendatuko du, honek, ikastetxeko tutorearekin batera heziketa programa adostuko du, eta bion artean enpresan egin beharreko formakuntza jarraituko eta ebaluatuko dute, ikaslearen gaitasunak eta kualifikazioa sendotzeko asmoz. Instruktorearen inplikazioa sekulako garrantzia du.
- ✓ Ikasleak, 1.kurtso osoa, ikastetxean emango du. 2.kurtsoa, ordea, ikastetxean eta enpresan (xehetasun gehiago, ikusi hurrengo galderan, “ordutegia” atala)
- ✓ 2 modalitate daude: kontratua (“Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuta”) edo beka.
- ✓ Kontratuarekin edo bekarekin, bietan alta eman behar zaio Gizarte Segurantzan. Kontratuarekin, kontingentzia guztien estaldura izango du (bajak, langabezia, jubilazioa…); bekarekin, ez du langabezira kotizatuko, bai gainontzeko kontingentzietara.
- ✓ Ikasleak, soldata edo ordainsaria jasoko du. Kontratua egiten bazaio, hitzarmen kolektiboa begiratuko da. Edozein kasutan –kontratua edo beka-, inoiz ez du jasoko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino gutxiago.
- ✓ 1.kurtsoa amaitzean –modulu guztiak gaindituta-, enpresan hasiko da, urtebetez, aldez aurretik planifikatu diren aktibitateak ikasten, enpresako instruktorearen ardurapean eta gainbegirapean.
- ✓ DUALa irauten duen bitartean, ikastetxeko tutorea eta enpresako instuktoreak harremanetan egongo dira –hilean behin: bisitak, telefonoz edo korreo elektronikoz-, ikaslearen bilakaera jarraitzeko.
- ✓ DUALaren amaieran, enpresako instruktoreak ikaslea ebaluatuko du.
- ✓ Kostu ekonomikoaren aldetik, kontratua egitea interesgarriagoa da (Gizarte Segurantzako kuoten bonifikazioa; Lanbidek emandako 2.000€ko diru laguntza). Ikusi kontratua eta bekaren arteko konparazio-taula. (beste artxibo batean)

3. Egutegia. Oporrak zenbat egun? Noiz? Ordutegia

Egutegia.

Eskola-egutegia (ikusi atxikitako egutegiaren artxiboa)

(2.kurtsoko ikasleak)

- Klaseak hasi: irailak 7
- Klaseak amaitu: otsailak 28

DUAL egutegia.

- ✓ Hasiera eguna: 2017ko ekaina 12-15 bitartean (aurrerago zehaztuko dugu)
- ✓ Amaiera eguna: 2018ko ekainak 11-14 (urte bateko iraupena)

Oporrak.

- ✓ Orokorrean, abuztuan izaten dira baina ez derrigorrean.
- ✓ Beste edozein langile bezala, DUALeko ikasleak ere oporrak izango ditu.
- ✓ Kontuan izan urte bat arituko dela (lan-kontratupekoak, oporrak izateaz gain, dirutan kobratuko ditu; bekapekoak, ordea, oporrak edukiko ditu baina legez ez ditu kobratzen).
- ✓ Enpresa berean 2 ikasle izanez gero -bat kontratupean eta bestea bekapean-, bekapekoaren baldintzak lan-kontratupekoarekin parekatzea gomendatzen dugu.

Ordutegia.

3 epealdi bereiztuko ditugu:

EPEALDIA	MIGUEL ALTUNAN	ENPRESAN
DUAL hasiera - Klaseak hasi arte (2017 ekainak 12/15 – 2017 irailak 6)	-	Egun osoko lanaldia (gehienez 8 ordu)
Klaseak hasi - klaseak amaitu (2017 irailak 7 – 2018 otsailak 28)	Gutxienez 4,5 ordu (goizeko 8:00-11:00 eta 11:30-13:00)	3 edo 3,5 edota 4 ordu (gehiago ez)
Klaseak amaitu - DUAL amaiera (2018 martxoak 5 – 2018 ekainak 11/14)	-	Egun osoko lanaldia (gehienez 8 ordu)

<table>
<tr><th></th><th colspan="10">1.KURTSOA</th><th></th><th></th><th colspan="10">2.KURTSOA</th></tr>
<tr><th></th><th>IRA</th><th>URR</th><th>AZA</th><th>ABE</th><th>URT</th><th>OTS</th><th>MAR</th><th>API</th><th>MAI</th><th>EKA</th><th>UZT</th><th>ABU</th><th>IRA</th><th>URR</th><th>AZA</th><th>ABE</th><th>URT</th><th>OTS</th><th>MAR</th><th>API</th><th>MAI</th><th>EKA</th></tr>
<tr><td rowspan="2">MIGUEL ALTUNA</td><td colspan="10" rowspan="2">33 ASTE (6 ordu egun) GOIZEZ</td><td colspan="2" rowspan="2"></td><td colspan="6">22 ASTE (4,5 ordu egun) GOIZEZ</td><td colspan="4" rowspan="2"></td></tr>
<tr><td colspan="6"></td></tr>
<tr><td rowspan="2">ENPRESA</td><td colspan="10" rowspan="2"></td><td colspan="2" rowspan="2">6 ASTE</td><td colspan="6">22 ASTE (3,5 ordu egun) ARRATSALDEZ</td><td colspan="4" rowspan="2">16 ASTE (8 ordu egun)</td></tr>
<tr><td colspan="6"></td></tr>
<tr><td>OPORRAK</td><td colspan="12"></td><td>4 ASTE</td><td colspan="10"></td></tr>
</table>

✉ Ibargarai 1 • 20570 Bergara • ☎: 943763840 / 943762491 • Fax 943763841 • email – imaltuna@sarenet.es

4.Dokumentazioarekin noiz hasi? (jarraitu beharreko urratsak)

EPEA	ENPRESAK (egin beharrekoa)	MIGUEL ALTUNAK
Apirila - Maiatza	• "Ikasle eskaera fitxa" bete. • "Aukeraketa ondorengo fitxa" bete. • Ikasleen Curriculum Vitaeak aztertu, ikasleak elkarrizketatu, aukeratu eta aukeratutakoaren berri eman Miguel Altunari.	• Hautagaiak egokiak aukeratu. • CVak bidali enpresari.
Lanean hasi aurretik (ekainaren 12rako)	• DUAL modalitatea aukeratu (Kontratua edo Beka). **KONTRATUpean** baldin bada: <u>Lehenbailehen:</u> ✓ Gizarte Segurantzan, enpresak, CCC berezia eskatuko du **(1)** *("Código de Cuenta de Cotización").* <u>Ekaineko lehen egunetan:</u> ✓ Alta eman langileari Gizarte Segurantzan. **(2)** ✓ "Solicitud autorización actividad formativa" (Eranskina 1) prestatuko da. (Agiri hau betetzen guk lagunduko dizuegu) ✓ Lan-kontratua prestatu. <u>Kontratua sinatu eta hurrengo 10 eguneko epean:</u> ✓ Kontratuaren komunikazioa contrat@ bidez <u>Lan kontratua hasi eta hurrengo hilabete bateko epean:</u> ✓ LANBIDEKO 2.000 €ko dirulaguntza eskatu **BEKApean** baldin bada: <u>Lehenbailehen:</u> ✓ Giz. Segurantzan CCC berezia eskatuko du. **(3)** <u>Ekaineko lehen egunetan:</u> ✓ Alta eman langileari Gizarte Segurantzan. **(4)** ✓ Lankidetza-hitzarmena bete eta sinatu. **----------** **(1)** Prestakuntza eta ikaskuntzarako lan kontratupekoentzat soilik **(2)** TRL 086 kodea jarriko da (TRL: "*Tipo de Relación Laboral*") **(3)** DUAL bekapekoentzat soilik. **(4)** TRL 986 kodea jarri behar da. Baita RLCE 9922 ("*Partic. En progr. Para la formación/Part. Prog. Form.*") ere. GARRANTZITSUA: <u>ikusi "Noticias RED" 2011/11 eta 2012/05 buletinak</u>	• Enpresako instruktorearekin elkartu eta kronograma egin (ikaslearen aktibitateak zehaztu) • Ikaslearen plana prestatu, aurkeztu eta Hezkuntza Saileko oniritzia eskatu.
Ekainak 12-15	Ikaslea lanean hasi (egun zehatza oraindik zehaztu gabe dago)	

5.Tutorea noiz jarriko da kontaktuan enpresarekin?

(jardueren planifikazioa egiteko)

Ekainaren lehenengo 2 asteetan zehar.

Miguel Altunako tutorea enpresara joango da.